


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure lan-esperientzia txikia eta gaitasun tekniko eta ekonomiko txikia direla eta, funtsezkotzat jotzen dugu enpresa eta laguntzaile batzuen laguntza eta parte-hartzea. Eragile hauek gure ideiarekin garapenean duten zeregina oso garrantzitsua da gure ideia benetako produktu bihurtzeko eta produktu hori emakume posible guztiei helarazteko gai izateko. Hurrengoak dira gure enpresaren funtsezko elkarteak:

Lehenik eta behin gure marketing kanpainak aurrera eramateko **Iberdrola eta Emakumeen Futbol Liga** aukeratu ditugu. Enpresa hauek beharrezkoak izango dira gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Gure produktuak ondo saltzeko ezinbestekoa izango da marketing on bat izatea. Bi enpresa hauek zehetazun handiz hautatu ditugu.

Iberdrolak 32 federazio bultzatzen ditu, hau da, Espainian dauden federazio guztien erdia. 2016az geroztik, Iberdrola da emakumeen kirolaren sustatzaile nagusia Espainian, eta horren ondorioz, %42-an igo da lagundutako federazioen emakumezkoen lizentzien kopurua. Era berean, 2016ko abuztuan, Iberdrola emakumezkoen futbolaren bultzatzaile nagusia bihurtu zen Espainian, Ligari izena emanez, eta "Primera Iberdrola" izena hartu zuen. Harrezkero, lehiaketa gero eta ikusgarritasun handiagoa hartzen hasi zen, telebista irekiaren estaldurari eta lehen mailako estadioetan jokatuak hainbat partidari esker.



Iberdrolak emakumezkoen kirolarekin eta, bereziki, emakumezkoen futbolarekin duen konpromisoa dela eta, uste dugu enpresa honekin akordioaren bat ixtea oso onuragarria izango litzatekeela gure produktuarentzat. Enpresa hau egiten ari den apustu handia aprobetxatuz, gure enpresak Iberdrolarekin akordioaren bat lor dezakeela uste dugu, gure produktua telebistako iragarkietan eta futbol zelaietan argitaratu ahal izateko. Gure marka garatzea onuragarria izango litzateke emakumezkoen kirolarentzat, eta, ondorioz, baita Iberdrola enpresarentzat ere.

Bestalde, uste dugu oso positiboa izango litzatekeela **Kirol Kontseilu Gorenaren "Universo Mujer III" programan** sartzea, Iberdrola baita programa horren bultzatzaile handiena. Programa honen helburua da emakumeen parte-hartzea sustatzea eta areagotzea kirolaren esparru guztietan, kirolaren balioen bidez gizartea hobetzen eta eraldatzen laguntzeko. Gainera, beste helburuetako bat emakumearen osasuna da kirolean. Osasunaren babes



hau gure produktuaren lehentasunezko helburuetako bat da. Horregatik, uste dugu akordio bat onuragarria izango litzatekeela bi aldeentzat. Haien laguntza lortzen badugu, askoz emakume gehiagorengana iristeko gai izango gara, horrela gure produktuaren kalitatea hazi ahal izateko.

Hau guztia dela eta, gure asmoa gure enpresa programa honetan erregistratzea da, honako eskaera honen bidez:

<https://www.csd.gob.es/sites/default/files/media/files/2023-03/Anexo%202-Modelo%20de%20solitud%20AEIP-UM%20III.docx>

Halaber, Iberdrolak, azaldu dugun bezala, emakumeen kirolezko produktuen marketing-a sarritan egiten ditu. Beraz, enpresa horrekin lan egitea erabaki dugu, enpresa horrek urte askotako esperientzia baitu produktu hauetako marketing-a egiten. Gainera, sektore honetan urte askotan aritu denez, sektore honen detaileak eta gure produktua era egokian garatzeko bidea errazten dituen estrategiak eta abar ezagutuko ditu.

Iberdrolaz gain, Emakumeen Futbol Liga, erakundeak marketinga egitea gure enpresarentzat onuragarria izan daiteke, modu honetan famatua izango da eta herritarrak gure produktua erosteko beharra piztuko dute. Emakumezkoen futbol ligaren esparruan, akordio ekonomiko bat lortu edo lortzen saiatuko gara



Espainiako emakumezkoen futbol federazioarekin, gure ligako talderik garrantzitsuenek gure zapatilak erabil ditzaten. Akordio hori lortu ondoren, espero dugu haren eraginak beheragoko mailetako ligetan ere izango duela eragina, merkatuan dugun presentzia esponentzialki handituz. Azken hain famatuak diren kirolariek erreferentzia eta eredu gisa hartzen dituzte beti eliteko kirolariek, kasu askotan, haien idoloak, eta horrek, kirol ekipamendua ere hartzen du, besteak beste, geure zapatilak.

Marketing eta publizitatea alde batera utzita, gure produktua errealitate batean bihurtzeko beste enpresa bat behar dugu. Gaitasun teknikorik (lantegiak eta ekoizpena aurrera eramateko instalazioak) eta ekonomikorik (langileak kontratatzeke edo lantegien alokairuak ordaintzeko) ez dugunez, **Joma** enpresak gure produktuaren ekoizpena eta banaketa egitea nahi dugu.

Gure enpresak akordio bat izango du Joma konpainiarekin. Joma Sport kirol-materiala fabrikatzen eta banatzen duen enpresa da, eta futboleko, runningeko eta teniseko oinetakoak eta ehunak ditu ardatz. Espainiako enpresa da, eta egoitza nagusia Redondela udalerrian du, Pontevedra probintzian.

Enpresa honekin egingo dugun akordioari esker, gure zapatilak sortzeko behar ditugun lehengai guztiak eskuratu ahal izango ditugu. Lokarrietatik, mihietatik, azaletik, material sintetikoetatik, kautxuzko zolatik.... ematen digute. Era berean, makina guztiak erabili ahal izango ditugu oinetakoak ekoizteko, bai eta gure produktua banatzeko garraiobideak.

Baina gure zapatilek Jomaren ohiko zapatilak ez bezalako puntu bat izango dute (aurreko emanaldietan azaldu dugun bezala). Horretarako, diseinatzaile, fisioterapeuta eta podologo talde bat izango dugu, emakumearen anatomia bideratutako oinetakoak diseina diezazkiguten.

Eskainiko dugun produktuaren garapenean **fisioterapeutek** rol oso garrantzitsu bat izango dute. Gure produktuaren xede nagusia emakueen gorputzei ondo moldatzen diren kirol zapatilak egitea da, lesioak saihesten dituztenak. Hortaz, funtsezkotzat jotzen dugu mediku hauen zeregina. Gure produktua kalitate hobereana izateko Bilboko fisioterapia klinika batekin harremanetan egongo gara, gure zapatilak emakumeei ahalik eta hoberen moldatzeko. Horretarako, lesioetan eta emakumeen anatomiaz eta fisiologian adituak diren profesionalak bilatu behar ditugu. Profesional hauek **FisioClinic klinikakoak** izango dira.

